

Landare-diaren % 20 galtzeko zorian

3 80.000 landare-espezie ezagutzen dugu gaur egun. 10 urte barru, ordea, 30.000 gutxiago egongo da gure planetan orain arteko joera zuzentzen



380.000 landare-espezie ezagutzen dugu gaur egun. 10 urte barru, ordea, 30.000 gutxiago egongo da gure planetan orain arteko joera zuzentzen ez bada.

ez bada. Natura Babes-terako Nazioarteko Elkarteak eman ditu datu horiek eta aurreikuspenak betetzekotan, beraz, munduko landare-diaren % 20 betiko galtuta izango da datorren mendean. Aurreikuspen horietan, gainera, ez dira kontuan izan gaur-gaurkoz sailkatu gabe dauden espezieak, hamar milatik gora, aditu- en irritziz.

Datorren mendeko gizakiek ezagutuko ez dituzten landare-espezie bilakaera auresaterik ez dago, noski. Batzuek ez dute berezko garapen-mekanismorik eskuratu; asko eta asko, aldiz, gizakion eraginez desagertuko dira. Izan ere, urbanizazioa, poluzioa eta habitaten egokitzapena jotzen dira hondamendiaren arrazoitzat. Neurririk jartzen ez bada, beraz, mende berriko planeta berdea ez da hain "berdea" izanen.

Etorkizunean, garia

Nekazari Ikerketarako Nazioarteko Aholkularitza Taldeak emandako datuen arabera, etorkizuneko "urrea" garia izango da. Garapen bidean dauden herrialde-

Nekazari Ikerketarako Nazioarteko Aholkularitza Taldeak emandako datuen arabera, etorkizuneko "urrea" garia izango da.



etan horretaz oharturik, gaitzen eta bizkarroien erasoei aurre egiten dien landarea produktitzeari ekin diote: garia landatzeari, hain zuzen. Eta jadanik ikus daitezke horren emaitzak: 1994.ean 217 tona bildu zituzten Asian, guztira Kanadak, Mexikok, Europak eta EEBBek epe berean bildu zutena baino zortzi mila tona gehiago. Merkea da, azkar hazten da eta ez dio produktioari kostu gehigarri handiegirik erantsen. Horratx gariaren dohaiak.

Nora doa papera?


Hegoaldeko euskal herritar bakoitzak 131 kilo paper kontsumitzen ditu urtero. Espainiako kontsumitzaileen Elkarteak



Hegoaldeko euskal herritarrek 131 kilo paper kontsumitzen dugu urteko; Iparraldekoek, berriz, 167. Horietatik % 41 inguru berrerabiltzen omen da.

eman du datu hori 1995eko azterketa egin ondoren. Iparraldeko datuak aztertuta, gainera, euskal herritarron joera hobeto ezagutu dezakegu: Bidasoaren bestaldean 167 kilo paper kontsumitzen du biztanle bakoitzak urte batean.

Erabilitakoaren % 41 inguru berrerabiltzen omen da, eta beraz, 2 milioi tona inguru erabili ondoren birziklatzeko biltzen dela esan daiteke. Elkarte berak esan duenez, honelaxe dago banatuta paperaren kontsumoa: 60 kilo paper enbalajea, 38 kilo inpresioan eta idazketan, 13 kilo prentsan eta, azkenik, 7 kilo zehaztu gabeko erabilpenetan.



Poluzioaren kontra, barazki-menestra?

Lurzorua poluzioa gero eta arazo kezkarriago eta larriagoa da. Europako Batzordeak argitaratutako txosten batean irakur daitekeenez, ekonomiaren garapena oztopatzen ere hel daiteke industri lurzorua poluzioari aterabiderik bilatzen ez bazaio. Oxfordeko Unibertsitateko ikertzaile-talde bat horretan ari da; poluzioaren kontrako tratamendu kimikoak baztertu eta biokonponketaren bidea urratzearen, teknika bitxia ari dira erabiltzen: azak eta azaloreak landatzen dituzte poluiturik dauden lurzoruetan eta horri

esker sail horiek “garbitzea” lortuko dela uste dute.

Jakina, poluzioari aurre egiten dioten aza eta azaloreak ez dira herriko azokan aurkitzen ditugunak. Izan ere, metal astunak xurgatzeko gaitasuna duten egokitzapen genetikoak egin behar zaizkie landare horiei aipatu helburua bete dezaten. Hala uste dute Oxfordeko ikertzaileek eta itxura guztien arabera, zuzen daude.

Ikertzaileek frogatu dutenez, zenbait landarek metal astunak poluituriko lurzoruetan erraz irauten dute. Zinkak, bromoak edo berunak ez diote landareen garapenari eragiten; metalak pilatu egiten dituzte, baina horrek ez die batere kalterik egiten. Ikertzaileen iritziz, beraz, xurgapen-prozesu naturalek oso garestiak diren prozedura kimikoak ordezka ditzakete. Histidina izeneko aminoazidoa omen da landare xurgatzaileen gako eta, beraz, substantzia hori ekoiz dezaten, genetikoki manipulatuko dira landareak.

Madrilgo Bioteknologia Zentro Nagusian, bestalde, metal astunak pilatuko dituen bakterioa ekoizteko ahaleginetan ari dira; hauek ere Oxfordeko ikertzaileek darabilten hipotesi bera frogatu nahi dute, hots, biokonponketa eraginkorra izan daitekeela metal astunak poluituriko lurzorua garbitzeko.

Oxfordeko ikertzaile-talde batek dioenez, genetikoki manipulaturako aza eta azaloreak landatzea izan daiteke metal astunak poluitutako lurzorua garbitzeko eratako bat.



Elefanteak errinozeroak maite dituzte

Hego Afrikako Pilanesberg-eko erreseban asalaturik dabilta. Izan ere, elefante gazte batzuek turistei erasotzeaz gain bertako errinozeroekiko sexu-joerak dituzte. Elefante eta errinozeroen aldeko Fundazioko Clive Walker jaunaren esanetan, elefante gazteak beste parke batean jaio eta ekarri zituzten Pilanesbergera, baina gainerako elefanteek ez zituzten beren taldeetan onartu.



Elefante gazte horiek aske hazi dira erreseban taldeko disziplinarik gabe. Erresebako zaintzaileek zuzenean argazkiak atera eta erakutsi arren, zoologoak eszeptiko samar azaldu dira elefanteen sexu-ohiturei buruz.

Pozioa eta maitasuna

Kantaridina aspalditik afrodisiakotzat hartu izan da, baina eragiten dituen erekzioak hain minga-



Kantaridina aspalditik afrodisiakotzat hartu izan da, baina eragiten dituen erekzioak hain mingarriak direnez, batez ere pozoi arriskutsutzat dauka jendeak. Hala ere, argazkiko kakalardoarentzat ez da pozoia eta sexu-atseginetarako bidea eskaintzen dio.

rriak direnez, batez ere pozoi arriskutsutzat dauka jendeak. Hala ere, animali espezie bantentzat (*Neophyrophora flabellata* kakalardoarentzat) ez da pozoia eta sexu-atseginetarako bidea eskaintzen dio.

Arra eta emea parekatzen direnean, esperma bidez kantaridina hornitzen da eta emeak bere arrautzak substantzia horretaz estaltzen ditu harrapariengandik babesteko. Arrak ordea, nondik eskuratzen du substantzia hori? Estatu Batuetako Wisconsin unibertsitateko ikertzaileen ustetan “errauli” izeneko euliak ere parte hartzen du horretan. Koleoptero honek toxina sintetizatzen du eta kakalardo arrak estu hartzen duenean odolarekin nahastuta tanta batzuk jariatzen ditu. Arrak orduan pozoi-tanta horiek biltzen ditu eta emearen bila hasten da, ernaltzeko asmotan.

